

2016  
Nº 05

# URDAIBAI

MAGAZINE ONLINE



## URDAIBAICO Saneamendua, lortzear dagoan erronka

- | AUTONOMIA PERTSONALERAKO GIZARTE ZERBITZUAK
- | GAZTELU ZAR TXOKOA, HISTORIA LAGUNARTEAN
- | BARAIAZARRA, AKORDEOIEN 'LUTIERRAREN' OINORDEKOA
- | ARRAIN AZOKA: "LEHENA-ORAINA-GEROA"
- | JUAN ANTONIO ZALDUA, SUKALDARI ZURI-GORRIA

Kutxabank/Hipoteka

# FINKOIA

# %2,50

etik aurrera

ITN: %2,50

UTB: %3,28\*



Etxe bat erostekotan bazabiltza, guri galdetu eta zuri egokitutako hipoteka eskainiko dizugu. Eta gainera, erosketaren tramite guztiekin lagunduko dizugu.

kutxabank  
hemen  
eta orain **k**

Adibidea: 28 urteko bezeroa. 100.000 euroko mailegua (tasazioaren zenbatekoaren %80) 30 urteko epean ordaintzeko. Kuota finkoa, amortizazio-sistema frantsesa. Tasa Finko Hobariduna: %2,50

(\*) Eskaintza honetarako hurrengo baldintzak bete behar dira: hileko 3.000 eurokoa edo hortik gorakoa den nomina heibideratzea; dendetan Kutxabank txartelekin egindako kontsumoa urteko 3.600 eurokoa edo hortik gorakoa izatea; Baskepensiones BGAErako edo Kutxabank Pentsio Planerako ekarpena urteko 2.000 eurokoa edo hortik gorakoa izatea; etxebizitza-asegurua kontratatzea eta urtero mantentzea (horretan edukizaitzearen kapitala 61.287 eurokoa da eta edukiairen kapitala 24.514,80 eurokoa); maileguaren hasierako nominalaren pareko gutxieneko kapitala duen bizi-asegurua kontratatzea eta urtero mantentzea.

UTB Aldakorra kalkulatzeko legeko araudiaren arabera adibide honetan Euskal Autonomia Erkidegoan lehenengo eskualdaketan ohiko etxebizitza erosteko sartutako hasierako gastuak 1.599,89 € dira, Irekitze-komisioa: %0,25, Gutxieneko zenbatekoa: 150 €, Etxebizitza-asegurua edukizaitzearen kapitala: 61.287 €, Edukiaren kapitala: 24.514,80 €, Urteko prima: 234,34 €, Bizi Asegurua: 100.000 €, Urteko prima: 155,30 €, Tasazioa: 273,46 €, Erregistroaren ordainsaria: 414,54 €, Gestoria: 272,25 € eta zergak Euskal Autonomia Erkidegoan: 0 €. Azken horiek, bezeroak kontratatu formalizatzean, ordaindu behar izango ditu. Etxebizitza Asegurua Kutxabank Aseguradora SAU sozietatearekin eta Bizi Asegurua Kutxabank Vida y Pensiones SAU sozietatearekin kontratatu behar dira. Horietan KUTXABANK SA Banka-Aseguruetako operadorea bitartekaria da. KUTXABANK, Kutxabank Vida y Pensiones sozietatearen bankako aseguruaren operatzaile bakarra da. Bestetik, Kutxabank Vida y Pensiones sozietateak Kutxabank Aseguradora SAU sozietatearekin eragiketak egiteko baimena eman dio KUTXABANKi. Gainera, Bitartekariaren Erregistro Administratibo berezian inskribatuta dago hurrengo zenbakiaz: C0654A95653077, Kutxabank SAK mailegua onartu behar du. Eskatutako baldintzak bete zezan, derrigorrezko Etxebizitza Asegurua izan ezik, Tasa Finkoa %1eko gehikuntza izango du. UTBa: %4,03.



## BUSTURIALDEAK ALKARTASUNA JORRATZEN DAU

Arrisku egoeran dagozan taldeen menpekotasuna gitxitzea erronka soziala da. Alkartasuna, maitasuna edota borondatea herrigintzaren eraginkortasuna hobetzen daben ezinbesteko balioak dira. Halan be, gurea dan moduko gizarteetan, landa inguruetan bizi dan zahartutako biztanleriaz osotuta dagozanak, bizi-itzaropena hazten doa eta egoera ekonomikoa larria da. Hori dala eta, inbertsino publikoa ezinbestekoa da pertsona honeen ongizatea bermatzeko.

Beharrianak asko dira. Pertsona nagusiek bakoitzari egokitutako neurri eta zerbitzuak behar dabez; pertsona ezinduek, langabetuek, etorkinek, tratu txarren biktima diran emakumeek eta babesgabetasun egoeran dagozan ume eta gazteek lez; asko dira banakako arreta eta zerbitzu tekniko pertsonalizatuak behar dabezan pertsonak.

Busturialdeko Udal ezbardinak bide honetan ari dira lanean. Hamazazpi udaletxe Busturialdeko Mankomunitadetan integratuta dagoz, eta erakunde publiko honen birtatez, premina gehien daben auzotarrei laguntzen deutse. Mankomunitadeko aurrekontuaren zati handiena gizarte-zerbitzuetara bideratzen da, baina, zer nolako etorkizuna leku proiektu eta kudeaketa egokirik bako diruak? Busturialdeko Mankomunitadetan dagozan kualifikatutako teknikoek, batzutan boluntarioen alkartasunaz lagunduta, lan ona egiten dabe. Espontaneoki ateratzen dan sentimendu hau, landuz gero, askosaz seguruagoa da. Busturialdea, beraz, alkartasunerako eskualde egokia dogu.

### URDAIBAI MAGAZINE NUEVA EUROPA S.M-REN LANTALDEAK BURUTU DAU:

Ideia, edukiak, testuak,  
argazkiak, diseinua, maketazioa  
eta produkzioa.

ARGITARATZAILEA: NUEVA EUROPA S.M

Carlos Gangoiti, 15, behea  
Gernika-Lumo (Bizkaia)

nuevaeuropa@nuevaeuropa.com  
www.nuevaeuropa.eus

LEGE GORDAILUA: BI-153-2015  
Aldizkari honek **Bizkaiko Foru**  
Aldundiaren laguntza jaso du.



# AURKIBIDEA

## ERREPORTAJEA

**04** AUTONOMIA PERTSONALA ETA  
GIZARTERATZEA dira Busturialdeko  
Gizarte Zerbitzuen Mankomunitadearen  
helburu nagusiak

## VISIT URDAIBAI

**07** GERNIKA;  
Portuko auzotik, foru-hiribildura

## LEKUKO

**08** GAZTELU ZAR TXOKOA,  
gastronomia eta historia lagunartean

## KALERIK KALE

**10** BARAIAZARRA, entzumena eta  
lanbidea, ondarea eta abilezia

## SAL TSA-PORRU

**12** BUSTURIALDEKO LIMOIAK,  
"arrainaren ibilbidean"

## BERDEAN

**14** URDAIBAICO  
SANEAMENDUA,  
lortzear dagoan erronka

## BETI-JAI


**16** ARRAIN AZOKAK  
"Lehena-Oraina-Geroa" gune  
ludiko-sortzailea eratu dau, tokiko  
arrantza tradizioa eta kultura  
sustatzeko helburuagaz

## ELKARRIZKETA

**18** JUAN ANTONIO ZALDUA  
Futbol zelaietatik,  
sukaldeko txingarretara

# Autonomia pertsonala eta gizarteratzea dira Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunidadearen helburu nagusiak

2015ean Mankomunidadea osotuten dabena udalerrietako **65 urte edo gehiagoko biztanleria**



## Busturialdeako Gizarte Zerbitzuen Mankomunidadeak bere lanaren zati garrantzitsu bat bideratzen dau gizarteratze eta mendekotasuna daben pertsonen autonomiara. Emakume eta umeez osotutako arrisku egoeran dagozan taldeek be arreta eta laguntza profesionala jasotzen dabe.

Busturialdeako Gizarte Zerbitzuen Mankomunidadea, eskualdeko 17 udalerrik (Arratzu, Busturi, Ea, Elantxobe, Errigoiti, Foru, Gauegiz Arteaga, Gernika-Lumo, Ibarrange-lu, Kortezubi, Mendata, Morga, Mundaka, Murueta, Muxika, Nabarniz eta Sukarrieta) osotutako zerbitzu publikoa da. Zerbitzuak, nagusiki, bi helburu beteteko egiten dau lan: bazterte edo babesgabetasun egoeran dagozan pertsona eta familien gizarteratzea bultzatzeko eta mendekotasuna daukien pertsoneri laguntzeko.

Horretarako, Mankomunidadeak zerbitzu eta baliabide publiko ezbardinak eskaintzen dauz, informazioa eta orientabidea emon eta laguntasunak jasoteko tramiteak burutuz. Egoitza nagusia Gernika-Lumon kokatzen dan arren, mugikortasun arazoak dirala eta egoitzara hurbildu ezin diran kasuetarako, etxez-etxeke zerbitzua be eskaintzen da.

## GIZARTE HELBURUA: MENDEKOTASUNA GITXITZEA


Baliabideen gehiengoa adineko pertsonen eta menpekotasuna daukien pertsonen osotutako taldeetara bideratzen da; 2015ean Eustatek argitaratutako datuen arabera, Mankomunidadea osotuten daben udalerrietako biztanleriaren % 22,53a 65 urte edo gehiagokoa da, EAEn erregistratutako ehunekoa baino altuagoa (% 21,09). Kontuan hartu behar da landa inguru eta inguru mistoetan, 65 urte edo gehiago daukiezan pertsonen kopurua handiagoa dala (% 22,32 eta % 24,35), zonalde urbanoetan baino (% 21,75).

Esparru honetan, Mankomunidadeak autonomia galdu daben edo galtzeko arriskuan dagozan pertsonen zati egiten dau, etxea eta bizilekua itxi behar izan barik, hauen bizi kalitatea hobetzeko helburuagaz. Menpekotasun mailaren arabera, honeen beharrei erantzuteko zerbitzu edo prestazio egokienak zehazten dira.

## ETXEAN HOBETO

Eteze-etxeke arreta Mankomunidadeak eskaintako beste zerbitzuetako bat da, bertara baliabide ekonomikoaren zati handi bat bideratzen dalarik. Egun, 107 zerbitzu dagoz martxan eta danera 25 langile dira, adin edo ezintasun arazoengaitik, autonomia gitxi daukien pertsoneri sostengua eskaintzen deutsean. Beraien eginbeharra pertsona honeen bizitza kalitatea hobetzea da eta baita menpekotasun maila handia daukien pertsonak bizi diran etxeetan, familiartekoek betetzen daben zainketa-lana osotutea be, zaintzaile nagusiei atsedean emonez.

Iturria: Eustat



## GAINERAKO ERAKUNDEEKIKO ZUBIA

Mankomunidadeak Bizkaiko Foru Aldundiak eskaintako Telelaguntza zerbitzurako eskaerak tramitatzen dauz, etengabeko arreta zerbitzua emoten dauan baliabidea da, bakarrik bizi edota egunean zehar luzaroan bakarrik dagozan pertsoneri zuzentzen jakena. Horrez gain, autonomia pertsonala hobetzeko laguntza teknikoa eskaintzen dauan Gizatek (Bizkaiko Foru Aldundia) zerbitzuaren eskaerak be tramitatzen dauz.

Mankomunidadeak laguntza teknikoen doako mailegu zerbitzu propioa be eskaintzen dau. Honetan, mende-kotasunen bat daukien herritarren edota aldi baterako autonomia murriztua daukien pertsonen beharizanen arabera tresna edo euskarri ezbardinak eskaintzen dira: gurpildun aukiak, ohe artikulatuak, garabi artikulatuak, etab.

## ZAINTZAILEA ZAINDU

Bizkaiko Foru Aldundiaren lankidetzagaz batera, Mankomunidadeak Zainduz programan lan egiten dau. Programa honen helburua menpekotasunak daukiezan familiartekoen zaintzailei arreta eta laguntza emotea da, norbere buruaren zaintzak daukon garrantziaz jabetu daitezcan eta zaintza lana errazteko teknikak landuz. Gizarte langile eta fisioterapeuta baten laguntzaz, norbere buruaren zainketagaz, gizarte baliabide eta mobilizazio jarraibideekaz erlazionatutako aspektuak lantzen dira. Horretarako, zahartze aktiboa sustatzen daben informazio kanpainak antolatzen dira; hitzaldien bidez, menpekotasun handiko pertsonen zaintzaileak diranei etxez-etxeko formazioa emonez, arreta pertsonalizatuko sesinoen bidez edo laguntza-taldean bitartez.

## BABESGABETASUNAREN KONTRA

Aurrekontuaren zati handiena pertsona nagusien taldeari zuzentzen jaken arren, Mankomunidadeak aintzat hartzen dauz beste esparru batzuk be; haurtzarora eta familia; emakumeak; immigrazioa eta gizarteratzea; eta laguntza ekonomikoak.

**Haurtzarora eta familiari** zuzenduta dagoan zerbitzuak, gizarte arriskuan edo babesgabetasun egoeran dagozan eskualdeko ume eta gazteen ongizatea bultzatzen dau eta laguntza eta orientazioa emoten deutse seme-alaben heziketan zailtasunak daukiezan familiei. Esparru honetan, lan bateratua egiten da hezitzaile, instituzino eta eskualdeko beste eragileekaz batera (ikastetxeak eta pediatria zerbitzuak).

**Immigranteei** egiten jaken harrera egokia dala bermatzeko, Mankomunidadeak arreta eta orientazio zerbitzu bat be eskaintzen dau. Etorkinen gizarteratzea bultzatu eta, herritar guztien artean bizikidetzak sustatzeko asmoz,

programa ezbardinak antolatzen dira; ikastetxeetan; ludoteka eta udalekuetan; eta liburutegi eta kultur etxeetan. Programa honeen helburua, sentsibilizazio eta jolas ezbardinaren bitartez, kultura ezbardinako pertsonen bizikidetzak bultzatzea da. Programa garrantzitsuenetarikoa *Berba-Truke* da, honek gaztelania edo euskera ikasten ari diran etorkinak harremanetan jartzen dauz hizkuntza honek menperatzen dabezan eskualdeko boluntarioekaz, etorkinei hizkuntza praktikatzeko aukera emonez.

Bestalde, Mankomunidadeak **emakumei** babes emoteko neurriak hartzen dauz. Emakumei zuzendutako lege-aholkularitzaren bidez, emakumei gai juridikoei buruzko informazioa eta orientazioa emoten jake. Gainera, Mankomunidadeak erakunde arteko protokolo bat be badauko emakumeen kontrako indarkerian esku hartzen daben eskualdeko eragileekaz batera, indarkeriaren biktimak diran emakumei harrera emoteko.

**Gizarte bazterketa egoeran dagozan biztanleek** Mankomunidadearen bitartez Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Larrialdietarako Laguntzak jasoten dabez, laguntza honek oinarritzkoak diran gastu zehatz batzuei erantzuteko zailtasun ekonomikoak daukiezan pertsoneri zuzenduta dagoz. Bestalde, Busturialdeko Mankomunidadearen Laguntza Bereziak dagoz, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak bermatzeko legeak zehazten dabezan baldintzak bete ez eta zailtasun ekonomiko larriak bizi dabezan herritarrentzako.

## LANKIDETZA AKORDIOA GURUTZE GORRIAGAZ

Oraintsu, Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunidadeak eta Gurutze Gorriak kolaborazio akordioa sinatu dabe gizarteratzeari jagokion esparruan.

Hitzarmenak 2 proiektu burutuko dauz:

- **Gizartetik kanpo gelditzeko arriskuan dagozan pertsona eta familiei eskaintako arreta**, baliabide eskasak daukiezan familia eta pertsonen etxeetan hilero sortzen diran gastuei aurre egiten laguntzeko.
- **Pertsona nagusiekiko edo dibertsitate funtzionala daukien pertsoniekiko hurbiltasun eta laguntza**, talde honek beraien ohiko inguruneetan daben iraunkortasuna bultzatzeko, eta bakardade sentimendua arinduz, honeen autonomia pertsonala eta gizarteratzea errazteko.

Mankomunidadeak ekintza honeen zati bat finantzatzeko konpromisoa hartu dau horretarako Gurutze Gorriari 14,982€ bideratuz. Lankidetzak akordioa 8 hilabeteen zehar egongo da indarrean.





Fernando G. Baptista  
Arkeologi Museoa

# GERNIKA

## 1366/2016

ARBOLAREN KOKALEKUA  
EL LUGAR DEL ARBOL



2016-04-29 | 2017-01-15

EUSKAL HERRIA MUSEOA  
Allende Salazar 5  
Gernika - Lumo

## GERNIKA; Portuko auzotik, foru-hiribildura

Gernika hiribilduaren sorreraren 650. urteurrena dala eta, Euskal Herria Museoa (Gernika-Lumo), udalerrira sortu zanetik gaur egunera arte erabakigarriak izan diran mugarriak azalduz, hiribilduaren historian barrena ibiltzeko erakusketa jarri dau ikusgai.

Erakusketak museo eta agiritegi batzuetako materialak bilduten dauz: Arabako Arma Museoa, San Telmo Museoa, El Pobaleko burdinola, Bakearen Museoa, Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboa, Elizbarrutiko Museoa, Foru Agiritegi Historikoa, Foru Liburutegia, Bizkaiko Arkeologia Museoa, Euskal Museoa, Goaz Museoa, Yusoko monasterioa (Errioxako San Millán de la Cogollan) eta Palentziako Elizbarrutiko Museoa;

azken museo honetatik, erakusketaren pieza garrantzitsuena etorri da, Gernikako hiribilduaren sortzailea dan On Telloren sarkofagoa.

Erakusketan, Busturialdea Eskualdeko hilarri originalen multzo bat eta Bizkaiaren agiri-ondareko harribitxiak dagoz ikusgai; hiriaren sorreraren Hiri-Gutuna, sorreraren inguruko dokumentu ezbardinak eta Chinchilla lizentziatuak idatzitako itun eta ordenantzak, besteak beste.

Azpitarratzekoak dira be, XIX. mendean independentzia gerretan erabiltzen ziran materialak, Arabako Arma Museoa erakusketara honetarako itxitakoak. Besteak beste: frantziar ezpata txikia, koraza, kaskoa edo zalditeriaren ezpata.

Erakusketan lehenengo aldiz erakusten dira Fernando IV.aren, Alfontso XI.aren, Enrike II.aren eta Antso IV.aren txanponak, beste batzuen artean, Bizkaiko Arkeologia Museoko piezak diranak.



### Arratzu BIDEAN

Arratzu eta Bidearen arteko batuera mende batzuk atzera kokatzen da, hainbat erromes bere bidexka honeetatik ibiltzen ziranetik. Izan be, Santo Tomas eliza, Santiagora joiazan erromesek ostatu hartu eta gurtzeko helburuagaz sortu zan.

MARKINA — 24,9km — ARRATZU — 3,5km — GERNIKA — 711km — SANTIAGO



ARRATZU

Lekuko

# GAZTELU ZAR TXOKOA,

*gastronomia eta historia lagunartean*

***Dauala 37 urte Gauegiz Arteagako koadrila batek, bertan behera itxitako Arteagako gazteluaren zalditegia zan eraikina erosi eban txoko bat sortzeko asmoagaz. Herri txiki bati bizia emoteko helburuagaz hasitako ekimena, herriko egunerokotasunaren erreferente bihurtu da.***

1976. urtean hasi zan istorio hau; haren protagonistetako bat izan zan Serafin Matillak kontatzen deusku, orain 68 urte daukoalarik, gertatutakoa atzo izan balitz lez gogoratzen dauana. "2 taberna baino ez egozan herrian, eta ez geunkan dibertitzeko aukera handirik. Asko bilatu ostean, herriko gazte batzuen artean, gazteluko eraikin zaharra erosi eta txoko bihurtzea erabaki genduan".

Jesús Omagogeaskoa, herrian bizi eta eraikinaren ardura-duna zanak, haren jaubea zan Smith jaunagaz kontaktuan

1000 Azules

Taberna  
946 035 531  
Móvil: 628 548 572

Pablo Picasso, 7 bajo • 48300 GERNIKA

1000 kolorau

Taberna - Jatetxe  
946 257 619  
Móvil: 628 548 572

San Juan Ibarra Plaza, 9 • 48300 GERNIKA



Picasso



Pablo Picasso kalea, 2 bis  
Tel. 94 605 70 34 - GERNIKA-LUMO



ipini ebazan; honakoa gazte ingeles bat zan, garai hareetan Madrilen bizi zana eta Castroponceko Konde titulua eukana. Deia jaso ostean, Smithek Arteagara bidaiatu eban, eta eraikinaren salmenta gauzatu eben 1.200.000 pezetaren truk.

1977. urtean, Gernikako notariotzan, gazteek eraikinaren eskritura egin eben eta 1979ko ekainaren 15ean, 2 urtez luzatu ziran barritze lanak amaituta, Gaztelu Zar txokoa inauguratu zan. *"Danok ibili ginen pikatxoi eta palagaz lanean, eta bazkide bakoitzak 10.000 pezeta ipini genduzan jatorriz solairu bakarra eukan eraikinak bi solairu eukiteko"*, dio Serafinnek.

Arteagako txokoa eskualdeko erreferente bihurtu da dudarik barik eta herriaren bizitza soziokulturala dinamizatzen lagundu dau. *"Txokoa Gautegiz Arteagan oso errotuta dago, bazkide izan zein ez"*, baieztu dau Serafinnek. Izan be, txokoak hasieratik antolatu dauz mota askotariko ekintza kulturalak; euskeraren aldeko ekintzak, udaletxearen laguntzagaz egindako herri bazkariak, Herri Martxa, sukaldaritza hitzaldi eta tailerrak, sukalki eta paella lehaketak edo ate edegien ohiko ekitaldia, zeinetan txokoa herriko taberna bat gehiago bihurtzen dan.

Gaztelu Zar txokoak historia dauko, baina batez be, etorkizuna franku. Teilatua barrizatu da, eta informatizazioa eta herriko gazteen inplikazioari esker txokoa modernizatuta dago. Bazkide bakoitzak pertsonalizatutako giltza elektronikoa dauko, eta honen bitartez, ateak zabaltzeaz gain, barraren alboan kokatuta dagoan ordenagailu komun batean bakoitzaren gune pribatuan sartzeko aukera dago. Gune pribatu horretan bazkideek euren ekintzen berri emoten dabe; kontsumitutakoa, zorrak eta hileroko kuotaren ordainketa, eta asteburuetan, txokoa herriko nukleoa bihurtzen danetan, mahai erreserbak bertatik egiten dira.

Estalitako frontoi txikia, telebistagaz hornidutako hainbat jangela, sukalde handia eta upeltegi bat; danera, 700 metro karratu. Hasieran gazteluko zalditegia, beranduago Gautegiz Arteagan negua pasatzen eben artzain eta artaldean babeslekua, eta orain, gune soziokultural bizia, gastronomia maitatu baten usain eta zapore, eta lagunarteko pilota-partida eta barriketakaz bete; herri baten lotura bere historiagaz.



## FINKA ADMINISTRAILEA

**Sorkunde García Badiola**

Elkargokide Zk. 31329

Juan Kaltzada, 60 behea  
GERNIKA-LUMO

Tel. 94 625 35 51  
Fax 94 627 02 98

sorkundeaff@telefonica.net



**L&G**  
LOGÍSTICA

**GARRAIOA,  
BILTEGIRATZEA,  
BANAKETA...**

Txaporta industrialdea, 2-1  
48300 Gernika - Lumo  
(Bizkaia)

Tel. 94 625 03 85  
Tel. 94 625 75 40  
e-mail: lgk@lgk.es





# Baraiazarra, entzumena eta lanbidea, ondarea eta abilezia

**M**usika instrumentu txikiz betetako erakusleihoagaz, denda berezi baten erakusgarri, Gernika-Lumoko musika denda dogu. Bertan ia edozein motatako musika instrumentuak aurkitu daitezke, baina bertako bereizgarri akordeoiak dira. Oso gitxi dira, edo bat bera bez, denda honetara inoiz sartu ez diran herriko edo eskualdeko musikariak, bai instrumentu bat erosi edo konponduteko bada be. 32 urte dituelarik, Baraiazarra denda, inguruko musikazale danen erreferentzia da.

## **Akordeioen "lutier" baten oinordekoa**

Pertsona adeitsu baten aurrean gagoz, edozein musika instrumentu konpontzeko prest dagoana. Kepa Baraiazarra artisau familia autodidakta baten hirugarren generazioaren erakusgarri da. 1984. urtean Gernika-Lumon musika tresnen

denda txiki bat zabaldu eban, baina salmentak jardueraren zati bat baino ez dira. Dendaren atzeko aldean mota danetako instrumentuak konpontzen dauz, txikitatik bere aitagaz ikasi eban lanbidea, honako hau be eskualdean ezaguna izan zan edozein erako tresnak konpondu edo sortzeagaitik, musika instrumentuak orokorrean baina bereziki akordeoiak. *"Artista bat zan. Musikaria izan barik,*



akordeoia joten eban entzumena erabiliz. 15 urtegar akordeoi zahar bat erosi eban konpontzeko eta 26 urtegar barri bat ekoiztu. Kanpandorreetako erlojuak be konpontzen ebazan”, gogoratzen dau Kepak.

Kepa, bere aita edozein motako aparatu eta instrumentuak, baina batez be akordeoiak, desmuntatu eta konpontzen ikusiaz hazi zan. Inguruko musikarari eta musika dendak bere Zabaleko baserrira (Errigoiti) joaten ziran akastun akordeoiak eroatera. *“Familiko kontua da, nire aitagana joan aurretik, nire aititaren-gana joaten zan jendea. Honek, beste gauza batzuen artean, bizikleta bat ekoiztu eban eta Gasteizeraino joan zan bertan igota”*, azpimarratzen dau Kepak.

Aitari enkargu txikiekaz lagunduz, Kepa abileziak eskuratuz joan zan eta familiako ohituragaz jarraitze-  
ra eroan eban pasioa sentitu eban, hori dala eta, Gernika-Lumo erdigunean bere negozio propioa zabaltzea erabagiz. Hasierak ez ziren bape errazak izan, baina Kepak instrumentuak konpontzeko eta akordeoien inguruan eukazan abileziei esker, Baraiazarra dendak denpora barrietan bizirautea lortu dau.

Kepak aurre egin behar izan deutzan zailtasune-  
tako bat, merkatuan Internetek izan dauan sarrera izan da eta horrekaz batera agertu diran erosketa eta salmenta modu barriak. Gero eta gehiago dira Internet bidez musika tresnak erosten dabezan pertsonak, baina honeek konpontzerako orduan, nahiz eta piezak online erosi ahal diran, beharrezkoa da trebetasuna eukitea eta ez da erraza. *“Baraiazarra dendara beti etorri izan dira musika munduan oso ezagunak diran pertsonak, bizitza osoan zehar musika instrumentuek azaldu egon eta konpontzen saiatu izan diran arren, lortu ezin izan dabena”*, dino Kepak.

## Bezero harrigarriak

Akordeioen eta hauen konponketaren inguruan merkatuan egon dan eta dagoan eskaintza maila bajua dala eta, Kepak bere tailerrean Galizia edo Santanderreko bezeroak be hartzen dauz. Kepa Junkera, gaztea zanean eukazan bezeroetako bat zan. Musikaria izan barik eta bere aitak eukan zaletasunari esker, Kepak bere denda erreferente bihurtzea lortu dau musikari profesional, musikazale eta batez be akordeoi jole askorentzat. *“Musika tresna bat konpontzerako orduan, entzumen ona euki eta notak batzen jakin behar da”*, azaltzen dau Kepak.

Gaur egun, dendak bere diru sarreren zati handiena konponketetatik lortzen dau; ia edozein motatako instrumentuak konpontzen dauz, nahiz eta gehienak akordeoiak diran. Hauen afinazinarako, bere tailer



**EUSKAL SOUVENIRS**

Andra Mari kalea s/n.  
48300 GERNIKA  
946 251 930 - 685 758 102

euskal.souvenirs@gmail.com www.euskalsouvenirs.com

**URDAIBAI**

Coasteering Kanoa/Kayak SUP - Stand Up Paddle

Tel: 94 627 66 61 / 688 635 190 www.urdaibai.com info@urdaibai.com

txikian aitak ekoiztutako hauspodun mahai bat dauka pedal bat integratuta daualarik.

Pasino, ahalegin eta abileziari esker, Baraiazarra arimaz betetako denda bihurtu da eta bertan, musikaririk jotzen ez eben instrumentuak berbiztu egiten dira Keparen eskuetan. *“Asko gustatzen jat egiten dodana, orduak hegan joaten jataz eta gustura nago akordeoi eta instrumentu artean”*, esaten dau pozik Kepak.



Saltsa-Porru

“BUSTURIALDEKO  
LIMOLIAK,  
ARRAINAREN  
IBILBIDEAN”



**Limoiondoek, laranjondoek edota mandarinondoek eskualdeko ortu eta lorategiei usaina eta kolorea emoten deutse. Klima mediterraneoan tipikoagoak diran arren, zitrikoek Urdaibaiko klimaren ontasunak maximora zukutzen jakin dabe.**



**U**rdaibain, zitrikoen laborantzaren inguruko dokumentazinoa eskasa da, eta nahiz eta honeen existentzia askotan oharkabeen pasatu, joandako garaietan garrantzia handikoak izan ziran. Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoan agertzen diran zenbait idazkietan, ondare moduan zehazten dira *“un huerto de limones y naranjos, una tierra cerrada de pared y naranjal,... en el término de Portuburu”* edo truke idazkiak *“de la torre solar de ‘Apioza’ que se halla plantado de limoneros y naranjos,...a cambio de los seles y montes pertenecientes a la casa y casería de ‘Ormaechea’, sitios en la anteiglesias de Axpe de Busturia y Arrieta”*. Idazki honeek, iraganean zitrikoek eskualdean euki eben garrantziaren lekuko dira.

Jatorria Asiako zonalde tropikal eta subtropikaletan dabela-rik, zitrikoak, laranjak, mandarinak, limak, limoiak eta pome-loak, mundu osoan zehar gehien hazitako frutu motak dira. Berez mediterraneoeko kliman ohikoagoak diran arren, gure kostaldeko hegoaldearen ñabardurak, izozte gitxigaz, limoiak diran moduko zitrikoen hazkunderian laguntzen dau. Honako honeek, aspalditik, gure eskualdeko itsasbaterreko baserrietan landu izan dira.

Euskadiko Bidaiariaren Gidaliburu Historiko Deskribatzaileak (Delmas 1864), dino, arraina egoera onean garraiatzeko arazoei aurre egiteko, bereziki urteko garai batzuetako beroan, mandazainek arrain freskoa limoi zukuagaz zipiztintzen ebela, honakoa be garraiatuz. Ezinbesteko eginbeharra, kontuan hartuz, gure portuetako arrainak hiru egun behar ebezela Madrileraino heltzeko.

Dokumentu bardinean aipamena egiten jako XVI eta XVII. mendeetan zehar, bisiguaren, eskabetxean edo marinatuta, esportazinoei esker arrantza-ekonomiak lortutako garrantzia zentzudunari. *“Garai honetan dabe jatorria ‘de luna’ motako limoiondoek, oraindino gaur egun Euskal Herriko kostaldeen ikus daitekezanak eta, dirudienez, kontserbak hobetu eta babesteko inportatuak izan ziranak. Frutu honeen zukuaren bidez, kontserbarako erabilitako sagardo-ozpinak eragindako zapore mingotsa arindutea lortzen zan”*.

## Garraztasun osasuntsua

Elikaduraren ikuspuntutik, limoiak, bitamina, mineral eta substantzia antioxidatzaile iturri diralako dira berezi-garriak. Horrez gain, kolonarentzako lagungarriak diran mikroorganismoen hazkunderian be laguntzen dabe, hezte-igarotea hobetuz.

Fisioterapeuta frantsesek, limoiaren olio balioizduna eta dana osatzeko gai dala dinoe, eta indargarria, pizgarria, karminatiboa, diuretikoa, antiseptikoa, bakteria-hiltzailea eta birusaren aurkakoa moduan ezaugarritzen dabe. Lehen Mundu Gerrara arte, antiseptiko eta desinfektatzaile moduan erabili eben. Tradizionalki, limoia eskorbutoa ekiditeko erabili zan, nabigatzaileen artean gaixotasun oso ohikoa, lehen aldiz XV. mendean deskribatua.

## Etxeko sendagarriak

Erromatarrek limoia erabiltzen eben sitsak beraien jantziak hondatzea ekiditeko.

Zukutu barri dagoan limoi uretan eskuak 5 minutuz sartzeak, atzazale-tako lohidurak kentzen eta atzazalak indartu eta zuritzen laguntzen dau.

Laranja, Moskitoen kontrako erremedio moduan erabili daike gabetan azalean igurtziz gero.

Egositako laranjen azalak sukaldeko usain txarrak kentzeko erabili daitezke. Azalora egosterakoan, honek ataraten dauan usaina ezkutatzeko, nahikoa da laranja oskol bat lapikoaren ganean ipintzea.

# URDAIBAICO Saneamendua, lortze

**Urdaibaiko Saneamendu Egitasmo Orokorra Euskal Herrian egin dan ingurumen ekimen garrantzitsuenetariko bat da, Urdaibaiko uraren egoera ekologiko aproposa babestutea eta ingurumenarekiko errespetutsua izango dan saneamendu eraginkorra lortzea helburu dauana.**

Saneamendu lanetako abiagune garrantzitsuena **Urdaibaiko ur-horniduraren Lurralde Ekintzako Plana** da; Urdaibai Biosfera Erreserban egitea aurreikusten diran saneamendu proiektuak koordinatu, planifikatu eta ingurumenaren babesari buruzko arategira egokituteko esparru dokumentua. Planaren erredakzioa 2002. urtean hasi zan eta guztiz onartu eban Busturialdeako Ur Partzuergoak 2004. urteko irailean.

## **AKTORE DESBARDINAK, XEDE BERBERA**

Lurralde Ekintzako Planean, eskualdearen saneamendurako beharrezkoak ziran azpiegiturak aurrera eroango ebezan Administrazioak zehaztu ziran: Espainiar estatuak Lamiarango Hondakin Uren Araztegia (Bermeo), Bizkaiko Foru Aldundiak Gernika eta Bermeoko barneko saneamendua

eta, Busturialdeako Ur Partzuergoak, Eusko Jaurlaritzako diru-laguntzagaz, herriarteko kolektorea.

2004. urtean Bizkaiko Foru Aldundiak Bermeo eta Gernikako saneamenduen proiektuak martxan jarri ebazan. Lan honek 2007. urtean bukatu ziran.

2008. urtean, Busturialdeako Ur Partzuergoak, Eusko Jaurlaritzak finantzatutako 35 milioi eurotako aurrekontuagaz, saneamenduaren bizkarrezurra dan ezkeraldeko kolektore orokorraren lanak hasi ebazan. Mundaka-Lamiarango araztegia, Sukarrieta-Lamiarango araztegiara doan tunela; eta Busturia-Sukarrieta tartekak burutu ziran, hirurak 2013. urtean amaituz.

1994. urtean Espainiako Gobernuak Lamiarango araztegia interes orokorreko obra izendatu ostean, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak 2007an esleitu eban eta azkenean, Ingurumen ministerioak araztegiaren lanak hasi ebazan 2009an, 2014ko urrian amaituz. Estatuak 25 milioi eurotako inbertsinoa egin eban araztegiaren lanetarako; horietatik 5 milioi, Bermeon 2015eko uztailetik instalatuta dagoan eta araztegia osatzen daben itsaspeko hustubidera zuzendu zan. Hodi handi honen funtzinoa araztutako hondakin-urak kostaldetik kilometro batera isurtzea da.



Busturialde,  
**EUSKARA** eta  
**URDAIBAIREN alde**



# ear dagoan erro

Kolektore orokorreko araztegi garrantzitsua Bermeokoa dan arren, plana onartu baino askoz arinago hasi ziran eskualdean saneamendu arloan lanetan. Lamiarangoa ez ezik, beste sei hondakin uren araztegi martxan dagoz daborduko: Urbietakoa, Gernikan (daua 45 urte eraikita), Elantxoben (1992), Ean, Laidan, Lagan eta Ibarrangelun. Araztegi honeen bitartez, konponduz joan dira kokapenagaitik ezkeraldeko kolektore orokorrean integratu ezin izan diran herrien saneamendu arazoak.

## GAUR EGUNGO EGOERA

Gaur egun, Bermeoko Lamiarango araztegia, eginda eta martxan dago; Bermeo eta Mundakako hondakin urak arazten dauz.

Busturiako San Cristobal auzotik Sukarrietara eta Sukarrietatik Lamiarango araztegiara doazan kolektoreak, 2013an eginak, martxan ipiniko dira Sukarrietako Marisma Parkeko ponpa-lekuaren obrak amaitzen diranean; gaur egun URA (Eusko Jurlaritzak) eraikitzen ari dan instalazio hau, bi tarteetan arteko katemaila da. Behin bukatuta, 2018an, haren xedea Sukarrietako eta ezkeraldeko kolektore orokorretatik jasotako hondakin eta euri-urak

Lamiarango araztegi bideratzea izango da. Eusko Jurlaritzak finantzaturako lanek, Urdaibaiko saneamendu sarea amaitzeko aurreikusitako aurrekontu orokorraren barruan (49.000.000), 12.500.000 eurotako inbertsinoa suposatzen dabe.

Hurrengo lanak, oraindino egin barik dagozan ezkeraldeko kolektorearen bi tarteak eraikitzeko izango dira; Gernika-Busturia eta Muxika-Gernika. Lehenengo zatiaren lanak urte honetan esleituak izango dira, eta azken zatiarenak, barriz, hurrengo urtean ezartzea aurreikusten da.

Urdaibaiko saneamendu sarea amaituta, aurreikusitako 4 urteetako epean, ura osasuntsua eta garbia izango da Urdaibain bizi diran pertsona guztientzako eta baita ingurumenarentzako be. Ganera, urtero, Mundakako itsasadarrera ezker hegaleko eta eskuma hegaleko herrietako 14 milioi metro kubiko ur-hondakin isurtzea galaraziko da; San Mameseko lau futbol zelairen parekoa.



## Elikadura-segurtasuna eta ingurune-segurtasuna

**Kontrol analitikoak**

**Autokontrol planak: arrisku sanitarioen prebentzioa**

APPCC eta PGH - Igerilekuak, giza kontsumorako urak eta legionelosisia

**Diagnostiko integralak**

Barne Airearen Kalitatea (CAI), klimatizazioa, iraungitzeak, bizitza baliagarria, bio-diagnosiak

**Aholkularitza**

**Formakuntza**



C/ Zabaloa, 13 - Galdakao . T. 944 566 580

[www.biotalde.com](http://www.biotalde.com) • [info@biotalde.com](mailto:info@biotalde.com) • [biotalde.blogspot.com](http://biotalde.blogspot.com)





## Bermeok

### XXII. ARRAIN AZOKA

ospatu dau "*Ireki zazu bizitasuna, jan zazu osasuna*" lelopean. Urte honetan azokak LOG (Lehena-Oraina-Geroa) gune barrian itsas munduaren lehena, oraina eta geroa uztartu dauz. Tokioko Rui Maeharazek zuzendutako sashimi atunaren dastaketak, ikutu exotikoa emon eutson azokari.

Euskal Herri mailan ezaugarri honeek eukazan lehen azoka izan zan Bermeoko Arrain Azoka. Urteak pasata, arrakasta handia lortu dau, herriko itsas-kultura, arrantza sektorean egindako lan ona, kontserba industriaren inplikazioa eta bermeotarren parte-hartzeari esker. Aurreko edizinoetan lez, Lamera parkean kokatutako hogeitabat postuk, arrantza eta kontserba sektoreetako produktuak eskainiz, jendearen interesa piztu eban.

Aurtongo azokak arrantza sektorearen iragana gogoratu, XXI. mendeko itsas munduaren erronkak aurkeztu, eta leloari lotuz, kontserbak jatea osasuntsua dala transmititu gura izan dau.

Edizino bakoitzak sorpresa barriak dakar. Aurton, karpa handi baten kokatutako LOG gunea (Lehena-Oraina-Geroa) sortu da; bertan, Bermeoko kultura, historia, gastronomia,



# ARRAIN AZOKAK

## “Lehena-Oraina-Geroa” gune ludiko-sortzailea eratu dau, tokiko arrantza tradizioa eta kultura sustatzeko helburuagaz



ekonomia eta nortasuna erakusteko, publiko ezbar-dinetara zuzendutako mota askotariko ekimenak antolatu ziran.

Gune barriak, Tokioko Rui Maehara sushimanak eginda-ko sashimi kalitatezko atunaren prestaketa, aurkezpena eta dastatzeaz gozatzeko aukera eskeini eban. Gazte ekintzaileek be protagonistak izateko aukera euki eben LOG gunean, arrantza eta esparru nautikoari lotutako ideiak bultzatuz.

Itsasoko *delicatessen show cooking*-a (itsasoko produktuetak sukaldaritza aurkezpena) be gune barrian antolatu zan eta arrainen historia aurkezteko egindako dastatze ezbardinek eta arrantza aparailuak egiteko tailerrek publikoa liluratu eben.

### Itsasoa, ohitura eta alkartasuna

Azokan ipinitako Alkartasun karpan, tokiko hamar gizarte eragile taldeetako boluntarioek, bertar-tutako jendeari atun errea prestatu eta eskaintzeko txandak egin ebezan asteburuan zehar. Lortutako dirua, garapen arazoak dabezan 6 eta 12 urte bitarteko umeen estimulazioa bermatzeko proiektura bideratuko da.

Esandako ekintza honez gain, ez ziren falta izan pintxo lehiaketa, Alberto Aurrekoetxea '*Frai Alberto*'k jasotako Hegaluze sariaren banaketa, Kofradia Zaharrean egindako arrain salmentaren antzeppenak eta txikienezko sukaldaritza tailerrak.



Juan Antonio Zaldúa

## FUTBOL ZELAIETATIK, SUKALDEKO TXINGARRETARA

1952ko azaroaren 14an Busturin jaioa, Juan Antonio Zaldúa Athletic Club de Bilbao futbol taldeko atezain itzela izatera heldu zan 7 denboralditan zehar, 1979an belauneko lesino baten ondorioz futbol zelaiak itxi behar izan ebazan arte. Arrez geroztik, Zaldúa ostalaritza munduko profesional aparta bihurtu da jatetxe ezbardinak zuzenduz: Zaldúa (Sukarrieta), Zuria (Bilbo), Baserri Maitea (Foru), Arteagako Gaztelua (Gauegiz Arteaga), Kaian (Plentzia) eta Komentu Maitea (Gordexola).

### **Noiz izan zendun zure lehen hartu emona kirol munduagaz?**

10 urte nebazanean Busturin hasi nintzan pilotan, palan eta futbolekin jokatu. Garai hartan, teorikoki, ez nintzan kirolaren munduan ezer emon ahal eban pertsona bat, gaztaroa heldu arte euki nebazan asma arazoak zirela eta. Halan be, futbolari jagokoanez, nire lehen pausuak 14 urtegar emon nebazan Gernika Futbol Club taldean sartu nintzanean, eta bertan ibili nintzan 17 urtegar Athletic de Bilbao taldeak fitxatu ninduan arte. Klubeko gazte taldeak eta Bilbao Athletic taldeak pasatu ostean, lehen mailako taldera heldu nintzan eta bertan jarraitu neban 1979ra arte.

### **Zerk emon eutson amaiera zure atezain ibilbideari?**

1978an *costocondritis*a diagnostikatu eusten; medikuak osatzen saiatu ziren belauneko lesinoa. Baina azkenean, eta arazoa konpontzeko ahalegin asko egin ziran arren, futbol zelaiak itxi behar izan nebazan. Hasieran oso gogorra izan zan; izan be itxaropena beti dago hor eta pentsetan dozu apurka-apurka osatuz joango zarala, baina konturatzen zara

egun hori ez dala heltzen. Azkenean, nire bizitza beste bide barrietara birbideratzea izan zan euki neban erremedio barrikarra, eta ostalaritzaren munduan murgildu nintzan; 1978an, oraindino Athleticceko jokalaririk nintzalarik, Zaldúa jatetxea zabaldu neban Sukarrietan.

### **Zelan gogoratzen dozu Zaldúa jatetxearen inaugurazinoa?**

Zaldúa jatetxearen inaugurazinoan gogorapen ederrak dekodaz. Hartu behar neban bide berri honen hasiera izan zan, eta Athletic taldeko nire kideak bertan egozan. Egund hartatik, mundu hau nire lanbide bihurtu zan; bizitza hone-tan jarduteko modu partikularra, gaur egunera arte.

### **Nondik jatortzu alde ostalari hori?**

Nire familiak zerikusi handia dauko horretan. Nire amamak Mundakan ezaguna zan taberna bat eukoan eta nire aita kozineru lanetan ibiltzen zan itsasontzietan. Egia esan, ostalaritzaren jardueran hasteko arrazoietako bat, aita bere itsasoko lana itxi eta lurreko bizitzari hasiera emon ahal izatea izan zan.



## ***Zalduako erretegia jatetxe zerrenda luze bateko lehenengoa baino ez da.***

Hori da. Plentziako Kaian erretegia, lehen Plentziako Zaldua zana, 1986an inauguratu zan. 1992an Baserri Maitea jatetxea zabaldu neban eta 2011n, beste bazkide batzuekatz batera, Zubia erretegia zabaldu genduan Bilbon. 2003an Arteagako Gazteluko jatetxea inauguratu zan eta azken edegiera Gordexolako Komentu Maitearena izan zan, joan zan urtean.

## ***Jatetxe danen artean, zeini deutzazu maitasun gehien?***

Guztiei deutset maitasun berezia, bakoitzak daukon historiagaitik. Zalduako erretegia nire "lehen semea" izan zan, gastronomikoki hitz eginez. Baserri Maitea indartua dagoan proiektua da eta estimazino handia deutzat; ez bakarrik jatetxe moduan, kokatuta dagoan inguruneagaitik baino. Kaian jatetxea ere ezin dot ahaztu, gaur egun ganera nire alabak lanean dabiz bertan. Azken finean, proiektu danek sortuten deuste ilusinoa eta danek daukie zeozer berezia.

## ***Pentsau ahal dozu inoiz zer gertatu izan litzatekeen futboleant jarraitu izan bazendu?***

Ez; askotan errepikatzen dodan esaera zahar bat dekot eta honela dino: nire bizitzan, inoiz ez dau balio "gertatu ahal izan zan" horrek. Garrantzia handiena gaur egun nazenari emoten deutzat eta beti aurrera begiratu beharra dago; atzeraka, bakarrik, txarto egin dodazan gauzak begiratu, zuzendu eta aurrera jarraitzeko.

## ***Uste dozu atezain-irudiak ostean eukitako arrakastetan lagundu deutzula?***

Athletic de Bilbao taldean egon izanak, noski lagundu deustala nire ostalaritzako ibilbidean. Baina hori ez da nahikoa lanbide honetan. Bezeroak leku berezi bat bilatzen dau, kalitatezko gastronomia eta jatetxearen jabea dan pertsonaren famak, laguntzen dauan arren, ez dau ezer ziurtatzen.

## ***Ostalaritza eta futbola lanbide gogorak dira, antzekotasunik aurkitzen al dozu bien artean?***

Eskerrona eta aintzat hartze hori oso aspektu garrantzitsu eta gogorra da bi lanbideetan. Bai futboleant eta baita ostalaritzan be, uneoro, jende askogaz kontaktuan zagoz eta honeen onarpena bilatzen dozu.

## ***Pertsonalki, zein motatako sukaldaritza dozu gustuko?***

Gastronomiari jagokoanez, mota ezbardinetako janaria dastatzeko prest nago; ezeri ateak itxi barik. Baina produktua bera, bere puntuant eta bere izaera gehiegi aldatzen ez daben elementuekatz, da zirrara gehien eragiten deustana.

## ***Gastronomiak zenbaterainoko garrantzia daukola uste dozu Urdaibaiko garapen turistiko eta ekonomikoari jagokoanez?***

Nire ustetan ezinbestekoa da. Gastronomia, turismoagatz harreman zuzena daukon aspektua da; zehazki, Urdaibain eta Euskadin oinarritzkoa dala deritxot. Gastronomia on bat, berau garatzeko aukera eskaintzen daben inguruneekin eta honetan lan egitearen bidez transmititu daiken maitasun eta arreta ahaztu barik, salmenta elementu zirrargarri bihurtzen da zuzenean.

## ***Produktu lokalen balioak zenbaterainoko garrantzia dauko berezia edo ezbardina dan gastronomia baten?***

Honakoa be funtsezkoa da. Egia esan, gure jatetxeetan, beste batzuek lehengaiak kanpoan bilatzen dabezanean, guk beti lan egin izan dogu produktu lokalekatz. Gaur egun oso modan dago KM 0 kontzeptua gastronomian, baina guk 20 urte baino gehiago daroagatz arlo horretan lanean. Bertoko produktua nahi doguz eta bertoko produktua sinestu ezinezkoak dira. Askok uste dabe jakina edo ikusita dagoan horri ezin jakoala ezer gehiago eskatu, baina hori ez da egia; jakina edo ikusia dan horri, beste buelta bat emon ahal jako itzela izaten jarrai daian. Eta hori, zelan ez, produktu lokalekatz egin daike.

Produktuatz gain, honeen aukeraketa be garrantzitsua da. Nire jatetxeetan, guk aukeratzen dogu haragia eta ez dogu inork bidalitakoa onartzen. Bertaratuta ere zaila bada aukera egokia egitea, bertaratu barik ezinezkoa da. Eskaintzen dozun horren kalitateak egunetik egunera jarraipena izan behar dau.



## Errenta / Renta **15**

Maiatzaren 2tik ekainaren 30era  
Del 2 de mayo al 30 de junio

Errenta eta Ondare Aitorpena  
Declaración de Renta y Patrimonio



[www.bizkaia.eus](http://www.bizkaia.eus)



901 50 3000